



EUSKARA BATZORDEA	COMISIÓN DE EUSKERA
DATA: 2013-11-07	FECHA: 07-11-2013
HASTEKO ORDUA: 18:00 BUKAERA ORDUA: 20:00 LEKUA: UDALETXEKO BATZAR ARETOA	HORA DE INICIO: 18:00 HORA DE FIN.: 20:00 LUGAR: SALA DE JUNTAS DEL AYTO.
AGERTU DIRENAK:	ASISTENTES:
<p>✓ Maitane Maritorea (BILDUko zinegotzia / <i>Concejal de BILDU</i>) X M^a Carmen Iribarren (UPNko zinegotzia / <i>Concejal de UPN</i>) (<i>etorri ezina adierazi zuen / excusada la no asistencia</i>) X M^a Isabel Olave (UPNko zinegotzia / <i>Concejal de UPN</i>) ✓ Maite Iturre (NABAI-2011ko zinegotzia / <i>Concejal de NABAI-2011</i>) ✓ Estebe Apezetxe (Bai Euskarari) (<i>etorri ezina adierazi zuen / excusada la no asistencia</i>) X Elena Arretxea (AEK) ✓ Alberto Atxa (Herri Eskolak) (<i>etorri ezina adierazi zuen / excusada la no asistencia</i>) ✓ M^a Carmen Irungarai (Xorroxin irratia) ✓ Julen Mitxeltoena ✓ Arantxa Zelaia ✓ Edurne Arrieta (San Frantzisko Xabier Ikastetxea) ✓ Pello Iriarte ✓ Paula Kasares (udaleko euskara teknikaria idazkaritako / <i>técnica municipal de euskera en labores de secretaria</i>)</p>	
GAI-ZERRENDIA:	ORDEN DEL DÍA:
1. Aitzineko Euskara batzordearen akta onartzea, hala balegokio.	1 ^º <i>Aprobación, en su caso, del acta de la última reunión de la Comisión de Euskera.</i>
2. Euskararen nazioarteko eguna ospatuko den abenduaren 3ko asteko ekitaldiak.	2 ^º <i>Actividades programadas en la semana del 3 de diciembre, Día Internacional del Euskera.</i>
3. Osasungintzan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina, UEMAk sustatua.	3 ^º <i>Campaña para la promoción del uso del euskera promovida por UEMA</i>
4. Eusko Ikaskuntzaren eskaintza eta 2014ko proiektua.	4 ^º <i>La oferta de Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos y el proyecto para 2014.</i>
5. 2014ko Euskara saileko aurrekontuak.	5 ^º <i>Predupuestos de la Sección municipal de Euskera.</i>
6. <i>Baztango mintzoa erabiltzeko gida</i> liburuxkaren banaketa.	6 ^º <i>Entrega a los miembros de la Comisión de la publicación Baztango mintzoa erabiltzeko gida.</i>
7. Galde-eskeak eta nork lekarkeena.	7 ^º <i>Ruegos, preguntas y otras aportaciones.</i>



ERABAKIAK:	ACUERDOS:
<p>1. Aitzineko Euskara batzordearen akta onartzea, hala badagokio Akta onartu da.</p>	<p>1. Aprobación, en su caso, del acta de la última reunión de la Comisión de Euskera. <i>Se aprueba el acta.</i></p>
<p>2. Euskararen nazioarteko eguna ospatuko den abenduaren 3ko asteko ekitaldiak Euskalgintzak hautatutako leloa agertu du: "Nirekin eskuara eskualdunak baikara". Maitane Maritorea zinegotziak euskararen nazioarteko egunaren inguruan lotutako ekitaldi hilabetea azaldu du. Batzordekideei egitarauaren gaineko informazioa bilkura-deiarekin batera igorri zitzairen. Zuzenketatxo batzuk (ordutegiari eta tokiei loturik) egin dira.</p>	<p>2 Actividades programadas en la semana del 3 de diciembre, Día Internacional del Euskera. <i>Los representantes de las asociaciones que conforman la Euskalgintza presentan el lema elegido: "Nirekin eskuara eskualdunak baikara" (Háblame en euskera, que somos euskaldunes). La concejala Maitane Maritorea da conocer el mes de actividades organizado en torno al Día Internacionald el Euskera. A los miembros de la Comisión se les envió información sobre el programa con la convocatoria de la reunión. Se hacen unas pequeñas modificaciones (sobre horarios y lugares).</i></p>
<p>3. Osasungintzan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina, UEMAk sustatua. Maitane Maritorea zinegotziak Udallerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA hemendik aitzina) osasun arloan prestatzen ari den egitasmoa azaldu du. Ekimen horren helburua osasunaren esparruan euskara erabiltzeko eskubidea aldarrikatzea eta euskaraz egiteko aukerak handitzea da. Kanpainak urrats eta jarduera hauek bilduko ditu: Alde batetik, Euskal Herriko hiru udalerritan (Azpeitian, Leitzan eta Baztanen) familia medikuak eta pediatriak euskaldunak izan daitezela lanketa berezia egiteko asmoa dago. Herritarren lekukotasunek osaturiko bideo bat prestatuko dute. Horretarako Baztango euskalgintzarekin harremanetan hasi dira (Estebe Apezetxe ari zaie horretan laguntza ematen). Bertzaldetik, eta bide batez, UEMAk udallerri guztietan (Baztan barne) osasun zerbitzuak euskaraz hartzeko eskatzera zuzendutako esku-orriak partituko dizkiete herritarrei. Horretaz gain, Udala Elizondoko Osasun Etxeko arduadunekin biltzeko asmoa dago. Nafarroako Parlamentura ere eramane du gaia UEMAk.</p>	<p>3. Campaña para la promoción del uso del euskera promovida por UEMA. <i>La concejala Maitane Maritorea presenta la iniciativa que promueve UEMA, la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes, para el fomento del uso del euskera en el ámbito de la Salud. La iniciativa tiene como objetivo la reivindicación del derecho a usar el euskera en el ámbito sanitario y ampliar las oportunidades de uso. La campaña preve los siguientes pasos: Por una parte, en tres municipios vascos (Azpeitia, Leitz y Baztan) se trabajará en la petición de que las y los médicos de familia y pediatras sean bilingües. Para ello se confeccionará un vídeo con testimonios de ciudadanos y ciudadanas, para lo cual ya están en contacto con las asociaciones que conforman la Euskalgintza de Baztan (Estebe Apezetxe está colaborando en el proyecto). Por otra parte, en todos los mucicipios de UEMA (Baztan incluido) se distribuirán entre la ciudadanía folletos para promover que se solicite profesionales sanitarios bilingües. Además de ello, está previsto que el Ayuntamiento se reúna con los responsables del Centro de Salud de Elizondo. UEMA también llevará este tema al Parlamento de Navarra.</i></p>
<p>4. Eusko Ikaskuntzaren eskaintza eta 2014ko proiektua. Maitane Maritorea zinegotziak Eusko</p>	<p>4º La oferta de Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos y el proyecto para 2014. <i>La Concejala Maitane Maritorea expone la</i></p>



<p>Ikaskuntzak Baztango Udalarekin duen hitzarmenaren barnean aurten egindako eskaintza azaldu du. Hitzarmenaren arabera Udalak urtero 1.500 € emanen lituzke eta Eusko Ikaskuntzak bere aldetik, jarduera akademikoak eskainiko. 2013an lantegi moduko saio bat, 1.500 €ko kostua zuena, proposatu zuten. Euskara zinegotziak aldiz, hitzaldia egitea hobetsi zuen (abenduaren 5ean antolatua, "Hizkuntza ekologia" gaia duena) eta gastatu gabe gelditzen zen dirua heldu den urteko ekarpenari gehitzea. Hala bada, heldu den urtean aurten gastatu ez den puska gehi 2014ari dagokiona metaturik izanen dugu eta Eusko Ikaskuntzarekin ikerketa proiekturen bat egiteko erabil liteke. Batzarkideek zenbait ideia proposatu dituzte: antzinako errezetak biltzea, etxeen izenak edo oikonimia jaso eta aztertzea, baserriko tresnak zirenen gaineko ikerketa... Dena delakoa, Etnografia Museoarekin lankidetzan egitea ere aipatu da.</p>	<p><i>oferta que dentro del acuerdo de colaboración que el Ayuntamiento de Baztan tiene con la Sociedad de Estudios Vascos / Eusko Ikaskuntza, ha recibido de esta entidad. Según el acuerdo, el Ayto. aporta 1.500 € anuales y la Sociedad de Estudios Vascos oferta actividades académicas. En 2013 se ha propuesto una sesión-taller con un coste de 1.500 €. El Ayto., sin embargo, estima más adecuado un formato de conferencia (que se realizará el 5 de diciembre, sobre el tema de Ecolingüismo) y lo que quede sin gastar que se sume a la aportación del año que viene. Así pues, para el 2014 se habrá acumulado el resto sin gastar de este año sumado a la aportación correspondiente al 2014 y se le podrá solicitar a la Asociación la realización de algún proyecto de investigación. Los miembros de la Comisión proponen algunas ideas: la recopilación de recetas antiguas, la recogida y estudio de los oicónimos o nombres de las casas del Valle, el estudio de aperos de caserío... También se ha propuesto que el proyecto cuente con la colaboración del Museo Etnográfico.</i></p>
<p>5. 2014ko Euskara saileko aurrekontuak. Maitane Maritorenak 2014ko aurrekontuak prestatzen hasi behar dela aipatu du eta aurtengo aurrekontuen laburpen orria partitu du. 2013an Euskara atalaren zeregin nagusiak <i>Baztango mintzoa erabiltzeko gida</i> argitalpena eta Baztango Udala UEMAn sartzea izan baziren, 2014ko egitasmo nagusiak zein izanen diren pentsatu beha da. Euskara zinegotziak aurtengo egin den "Udako jostaldia" izeneko jarduera (11.176 €ko kostua izan duena) birpentsatzeko proposatu du. Horren gainean batzordekideek haur-gaztetxoek euskararen erabilera eta gurasoen kontzientziazioa lantzeko ekimenen beharra azaleratu dute. Beharrik handiena Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxeko ikasleei antzeman zaie. Eskara teknikariak Topaguneko Oskar Zapatarri elkarte horrek hau-gaztetxoek aisialdian euskararen erabilera indartzeko jardueren informazioa eskatuko diola aipatu du. Euskara zinegotziak heldu den urteko Euskara atalerako aurrekontuetan sar litezkeen egitasmoak proposatzeko gonbidapena egin die batzordekideei. Hurrengo Euskara batzordera ekartzeko eskatu die.</p>	<p>5º Predupuestos de la Sección municipal de Euskera. <i>Maitane Maritorenak comenta que ya se está trabajando en la elaboración de los presupuesto del 2014 y reparte entre los miembros de la Comisión un breve resumen de las cuentas de este año. En el año 2013 los proyectos importantes han sido la publicación de la guía Baztango mintzoa erabiltzeko gida y la incorporación de Baztan en la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes. Hay que pensar qué proyecto será prioritario en 2014. La concejala de Euskera propone repensar la actividad de nombre "Udako jostaldia" (que ha tenido en el 2013 un coste de 11.176 €). Sobre ese tema los miembros de la Comisión exponen su opinión sobre la necesidad de poner en marcha alguna iniciativa para fomentar el uso del euskera entre niños y jóvenes y la concienciación de padres y madres. La mayor necesidad se ve entre el alumnado del colegio San Francisco Javier. La técnica de euskera apunta que solicitará información a la asociación Topagunea sobre la oferta de programas de ocio en euskera. La concejala de euskera invita a los miembros de la Comisión a que realicen propuestas sobre</i></p>



	<i>iniciativas a tener en cuenta en los presupuestos de 2014 y les solicita que las traigan a la próxima reunión de la Comisión.</i>
6. Baztango mintzoa erabiltzeko gida liburuxkaren banaketa. Maitane Maritorea zinegotziak <i>Baztango mintzoa erabiltzeko gida</i> argitalpenaren aleak partitu ditu Euskara batzordeko kideen artean	6º Entrega a los miembros de la Comisión de la publicación Baztango mintzoa erabiltzeko gida. <i>La concejala Maitane Maritorea reparte entre los miembros de la Comisión ejemplares de la citada publicación.</i>
7. Galde-eskeak eta nork lekarkeena Batzordekide batek Baztan Ikastolako guraso talde bat ETB3 hartzeko aukeraz galdezka ari dela adierazi du eta Udalak ea zer dakien horretaz. Maitane Maritorenak Mikel Ortega horren gainean dagoela jakinarazi du.	7ª Ruegos, preguntas y otras aportaciones. <i>Un miembro de la Comisión pregunta sobre la información que se tiene en torno al interés de un grupo de padres y madres de la Ikastola Baztan por la captación de ETB3. Maitane Maritorea informa que el concejal Mikel Ortega se está encargando del tema.</i>
<u>HURRENGO BILKURA</u> ilbeltzaren 23an, ortzegunarekin, izanen da.	<u>LA PRÓXIMA REUNIÓN</u> tendrá lugar el 23 de enero, jueves.